

## **Baztango Udalak emakumeen kontrako indarkeriaren aitzinean jarduera koordinatzeko lehen tokiko protokoloa sinatu du**

*Nafarroako Berdintasun Institutuak, Osasunbideko ordezkariak eta Gobernu Ordezkaritzak protokolo hau sinatzeko ekitaldian parte hartu dute, eta, honekin, Baztango Udalak urrats berriak eman ditu indarkeria matxistak artatzeko eta desagerrarazteko.*

Baztango Udalak bere lehen protokoloa sinatu du gaur, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako prozedurak eta ekintzak koordinatzeko. Sinadura ekitaldian, Nafarroako Berdintasun Institutuko, Osasunbideko eta Gobernu Ordezkaritzako ordezkariak izan dira, Baztango Udalak indarkeria matxista kasuak artatzeko eta desagerrarazteko duen konpromisoa islatzen duen urrats esanguratsu hori babesteko.

Emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da, eta milioika emakume eta nesken bizitza baldintzatzen du. Egiturazko indarkeria da, eta gizonak emakumeen kontra egiten dute, definizioz. Indarkeria horrek hainbat adierazpen ditu, eta kalte sakonak eragiten dizkie indarkeria jasaten duten bizirik irauten duten emaztekiei, haien familiei eta inguruneari, eta, ondorioz, baita gure jendarte osoari ere, genero-rolak eta -estereotipoak eta oraindik ere oso nabarmena den desberdinkeria betiketuz. Emakumeen kontrako indarkeria motak dira indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa eta indarkeria ekonomikoa.

Errealitate hori ez da Baztandik kanpo geratzen; izan ere, toki guztietan bezala, indarkeria-kasuak erregistratzen dira, eta egoera tamalgarri hau bizi duten emakumeak eta familiak artatzen dira. Kontziente gara udalaren esku-hartzeak dituen mugez (baita tokiko, foru eta estatuko baliabide guziak martxan jartzen dituen arreta integralak dituen mugez ere, zenbakiek ez dute gezurrik erraten, eta aurten inoiz baino kezagarriagoak izaten ari dira), eta horregatik bertze urrats bat eman nahi dugu egiten dugun prebentzioa eta arreta hobetzen segitzeko.

Gaur goizean sinatzen dugun Protokolo hau udalaren esku-hartzearen esparruan egin da eta urte eta erdiko lan-prozesu baten amaiera da, baita protokoloa martxan paratzeko bide berri baten hasiera ere. Protokolo hau errealitate bihurtzeko, udaleko, eskualdeko eta Nafarroako baliabide eta zerbitzu desberdinetako langileek, Baztanen indarkeria matxistatik bizirik atera diren emaztekiek eta Baztango politikariak parte hartu dute prozesuan. Hori guziaz, udaleko berdintasun-arloak bulkatuta eta koordinatuta, EMAGIN Elkartearen aholkularitza profesionalaren laguntzarekin. Baztango Emaztekiek Kontrako Indarkeriaren aitzinean Jarduteko I. Koordinazio Protokolo honek udaleko talde politiko guztien aho bateko konpromisoa izan du, 2023ko uztailan onartu baitzen osoko bilkuran.

Dokumentu honen helburu nagusia erantzun egokia ematea da eta esku-hartze koordinatua eta homogeneoa, espezializatua, integrala, kalitatezkoa eta genero-ikuspegia duena egitea da, betiere egiten dugun arretak emakumeen eta nesken ahalduntzea bulkatzea helburu gisa izanda.

Sinadura Baztango Udalean egin da, eta bertan parte hartu dute Patricia Abad INAI/NABIko zuzendari-gerenteak, Fernando Anbustegi Baztango alkateak, Montserrat De la Fuente Hurtado Nafarroako Osasun Zerbitzuko Arreta Soziosanitarioko Ataleko buruak eta Izaskun Pombo Munilla Nafarroako Osasun Zerbitzuko Iruñeko Eremuko Sexu eta Ugalketa Osasuneko Ataleko buruak. Bertan izan dira, halaber, Baztango Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako, Osasun Zentroko eta Sexu eta Ugalketa Osasuneko Zentroko ordezkariak, bai eta emakumeei eta haien

familiei arreta ematen diharduten segurtasun-indarrak eta Estrella Lamadrid, Gobernuaren Ordezkaritzako Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Koordinazio Unitateko burua.

Protokoloaren funtsezko elementuetako bat da emakume horien arretan inplikaturako baliabideak koordinatzea, tokiko koordinazio-mahai bat planteatuz. Mahai horretan honako hauek izanen dira ordezkariak: Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzua, Baztango Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Iruñerriko eta Iparraldeko Genero-indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea (EAIV), Gobernuaren Ordezkaritza, Baztango osasun-zentroa, Elizondoko sexu-eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroa, eta Foruzaingoa eta Guardia Zibila.

Koordinazio-tresna gisa, aldizkako bilerak proposatzen dira inplikaturako baliabideen artean, kasuen jarraipena egiteko eta haien bilakaeraren eta gorabeheren erregistro homogeen bat egiteko. Erreferentziako ebaluazio-fitxa bat erabiliko da kasuaren larritasuna eta aktibatu beharreko tresnak zehazteko. Gainera, lau urtean behin protokoloa berrikusteko konpromisoa hartzen dute, erabiltzaileen asebetetzean oinarrituta.

Protokolo hori Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan egin da, eta, beraz, emakumeen aurkako indarkeria-egoerei erantzuteko koordinazio-prozedurak toki-erakundeetatik homogeneizatzeko oinarriak ezartzen ditu. Era berean, indarkerian espezializatutako baliabideen kudeaketa optimizatu nahi du, emakumeen eta haien familien birbiktimizazioa saihestuz. Beraz, bide berri baten hasiera da.

---

## **El Ayuntamiento de Baztan firma su primer protocolo local de coordinación de la actuación ante la violencia contra las mujeres**

*El Instituto Navarro de Igualdad, representantes de Osasunbidea y Delegación de Gobierno asisten a la firma de este protocolo con el que el Ayuntamiento de Baztan da nuevos pasos en la atención y erradicación de las violencias machistas.*

El Ayuntamiento de Baztan ha firmado hoy su primer protocolo local para la coordinación de actuaciones frente a la violencia contra las mujeres. En la ceremonia de firma, estuvieron presentes representantes del Instituto Navarro de Igualdad, Osasunbidea y Delegación de Gobierno, respaldando así este paso significativo que refleja el compromiso del Ayuntamiento de Baztan en la atención y erradicación de las violencias machistas.

La violencia contra las mujeres constituye una grave violación de los derechos humanos que condiciona la vida de millones de mujeres y niñas en el mundo. Se trata de una violencia estructural que, por definición, ejercen hombres contra mujeres. Esta violencia que tiene diferentes manifestaciones y produce profundos daños en todas las supervivientes que la sufren y en sus familias y entornos, y, por consiguiente, en nuestra sociedad, perpetuando roles y estereotipos y una aún muy marcada desigualdad de género.

Esta realidad no es ajena al Valle de Baztan, donde, como en todas partes, se registran casos de violencia y se atiende a mujeres y familias que atraviesan esta lamentable situación. Siendo conscientes de las limitaciones que tiene la intervención municipal (incluso de las limitaciones que tiene una atención integral que pone en marcha todos los recursos locales, forales y estatales, los números no mienten, y este año están siendo más alarmantes que nunca), se

pretende dar un paso más para seguir mejorando la prevención y atención que se realiza desde los servicios en Baztan.

Este protocolo se ha elaborado en el marco de la intervención municipal, y su firma supone la culminación de un proceso de trabajo de año y medio en el que ha participado personal de distintos recursos y servicios municipales, comarcales y forales, así como mujeres supervivientes del Valle o personal político, todo ello, impulsado y coordinado por el área de igualdad municipal y con el apoyo profesional de la consultora EMAGIN. Este protocolo local de coordinación de la actuación ante la violencia contra las mujeres ha contado con el compromiso unánime de todos los grupos políticos del ayuntamiento con su aprobación en el pleno julio de 2023.

El objetivo principal de este documento es dar una respuesta y realizar una intervención coordinada y homogénea, especializada, integral, de calidad y con enfoque de género, buscando siempre que la atención que realizamos contribuya al empoderamiento de las mujeres y las niñas.

En la firma, que ha tenido lugar en el Ayuntamiento de Baztan, han participado la Directora-Gerente del INAI/NABI, Patricia Abad, el alcalde de Baztan, Fernando Anbustegi, Montserrat De la Fuente Hurtado, jefa de Sección de Atención Sociosanitaria del Servicio Navarro de Salud, e Izaskun Pombo Munilla, Jefa de Sección de Salud Sexual y Reproductiva del Área de Pamplona del Servicio Navarro de Salud. También han estado presentes representantes de Servicios Sociales de Base, Centro de Salud y Centro de Salud Sexual y Reproductiva de Baztan, así como fuerzas de seguridad involucradas en la atención a mujeres y sus familias y Estrella Lamadrid, Jefa de Unidad de Coordinación contra la Violencia hacia la Mujer de la Delegación de Gobierno.

Un elemento crucial del protocolo es la coordinación de recursos involucrados en la atención a estas mujeres, planteando una mesa de coordinación local con representación del Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Baztan, su Servicio Social de Base, el Equipo de Atención Integral a Víctimas de la Violencia de Género de Comarca de Pamplona y Zona Norte (EAIV), representantes de Delegación de Gobierno, centro de salud de Baztan, centro de atención a la salud sexual y reproductiva en Elizondo, y la Policía Foral y Guardia Civil.

Como herramientas de coordinación, se proponen reuniones periódicas entre los recursos implicados para el seguimiento de casos y un registro homogéneo de su evolución e incidencias. Se utilizará una ficha de evaluación de referencia para determinar la gravedad del caso y las herramientas a activar. Además, se comprometen a revisar el protocolo cada cuatro años, basándose en la retroalimentación de las usuarias.

Este protocolo, elaborado en colaboración con el Gobierno de Navarra, establece por tanto las bases para homogeneizar los procedimientos de coordinación en la respuesta a situaciones de violencia contra mujeres desde las instancias locales. Asimismo, busca optimizar la gestión de los recursos especializados en violencia, evitando la revictimización de las mujeres y sus familias. Es por tanto el inicio de un nuevo camino.